araba álava
foru aldundia diputación foral

KULTURA ARABA

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Ignacio Aldecoaren familiak idazlearen objektu pertsonalak emango dizkio Kultura Etxeari, modu iraunkorrean erakusgai egongo direnak

Aldecoa eta Anitua Aldecoa familiek egindako dohaintzari esker, egilearen ondare pertsonalaren zati bat kontserbatu eta jendearengana hurbildu ahal izango da, "Naufragioaren aztarnak" izeneko erakusketa gune berri batean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 12a. Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak idazle gasteiztarrarenak izan ziren hainbat objektu eta ondasun pertsonal sartuko ditu bere funtsetan, Aldecoa eta Anitua Aldecoa familiek egindako dohaintzari esker. Dohaintza gaur formalizatu da, Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak dagokion dokumentua sinatuta, eta, horri esker, egilearen ondare pertsonalaren zati bat kontserbatu eta jendaurrean erakutsi ahal izango da haren izena daraman liburutegian.

Dohaintzan emandako ondasunak modu iraunkorrean egongo dira ikusgai Kultura Etxearen instalazioetan, familiek ezarritako baldintzen arabera, eta aldi baterako maileguan baino ezingo dira atera.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren arabera, "dohaintza honek balio oso berezia du, aukera ematen baitigu Ignacio Aldecoaren bizitzaren zati bat berreskuratzeko eta kontserbatzeko. *Bere familiaren eskuzabaltasunari esker, objektu hauek bere irudira hurbildu nahi duten pertsona guztien eskura egongo dira, ez bakarrik liburuen bidez, baita bere eguneroko bizitzaren parte izan zen guztiaren bidez ere. Modu bat da bere oroitzapena bizirik mantentzeko jaio zen hirian eta bere izena daraman Kultura Etxean".*

Dohaintza hori dela eta, Kultura Etxeak erakusketa gune berri bat egokitu du, "Naufragioaren hondakinak" izenarekin. Josefina Aldecoaren testu batetik hartutako izendapena da, non Ignaciorekin ezkonduta egon zen 17 urteetan partekatutako bizitzaren parte izan ziren objektuak gogorarazten zituen.

Idazki hartan, Josefinak gogoratzen zuen nola bildu zituen lorategiko etxetxoan "altzariak, liburuak, margolanak, Ignaziorentzat eta niretzat esanguratsuenak diren gauza guztiak"; besteak beste, *Balearen arrantza* tximiniako grabatua eta intxaurrondo egurrezko mahai sendo bat, elkarrekin erosi zuten lehen altzaria.

Hain zuzen ere, objektu horietariko bi, hau da, intxaurrondo zurez eginiko mahaia eta *Balearen arrantza* grabatua, zeinak leku berdinean baitzeuden Ignacio Aldecoaren bulegoan, dohaintza horren parte dira, eta orain Vitoria-Gasteizera itzuli dira. Biak ikusi ahal izango dira erakusketa espazio berrian, idazlearen beste ondasun pertsonal batzuekin batera.

Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus

Gune berriak aukera emango du idazlearen dimentsio intimoenera eta egunerokoenera hurbiltzeko, haren bizitzaren parte izan ziren objektuen bidez, eta aukera berri bat da bere memoria jaio zen hiritik bertatik babesteko eta zabaltzeko.

Espazio honen aurkezpena, gainera, beste urteurren esanguratsu batekin batera dator: 2026an, 25 urte bete dira Kultura Etxeak Ignacio Aldecoa izena hartu zuenetik. Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 4ko 1042/2001 Erabakiaren bidez (2001eko abenduaren 26ko ALHAOn argitaratu zen) izendatu zen garai hartako Kultura Etxea gaur egun daukan izenarekin, hau da, "Casa de Cultura Ignacio Aldecoa Kultura Etxea". Erakusketa txoko hau sortzeak indartu egiten du, mende laurden bat geroago, idazlearen eta haren izena daraman erakundearen arteko lotura, eta lagundu egiten du bizirik mantentzen Araban duen legatua.

Dohaintza, gainera, bereziki esanguratsua da Arabako Foru Aldundiak 2025ean zehar Ignacio Aldecoa jaio zeneko mendeurrena ospatzeko antolatutako jarduera programari amaiera emateko. Urte horretan, bere figurak eta lanak arreta berezia jaso dute erakusketen, argitalpenen eta hainbat kultura proposamenen bidez.

Ekimen aipagarrienen artean "Ignacio Aldecoa. Istorioen kontalaria" erakusketa dago. 2025eko maiatzean inauguratu zen Kultura Etxean eta Julià Guillamon idazleak egin zituen komisario lanak. Erakusketak publikoaren interesa piztu zuen, eta azarora arte luzatu zen. Gainera, egilearen bizitza eta literatura ibilbidea aztertu ziren lau gune tematikoren bidez. Katalogoak, gainera, ahots akademiko eta literario ezagunen ekarpenak jaso zituen.

Estatuan ere proiekzio garrantzitsua izan zuen mendeurrenak 2025eko abenduan Espainiako Liburutegi nazionalean inauguratu zen erakusketari esker: *Ignacio Aldecoa. El oficio de escribir.* Erakusketak Arabako Foru Aldundiaren eta Acción Cultural Españolaren lankidetza izan zuen. Erakusketak bere ibilbidean sakontzeko aukera eman zuen, eta idazlearen bi eleberri argitaratu gabe ezagutarazi ziren, *Ciudad de tarde* eta *El gran mercado.* Aurretiko *d*okumentazio lanetan aurkitu zituzten obrak.

Abesbatza eta literatura kontzertua bere oroimenez

Aldecoa gogoratzeko programazioak azaroaren 13an (ostirala) jarraituko du, Ignacio Aldecoa abesbatzak emango duen abesbatza eta literatura kontzertuarekin. Kontzertua Kultura Etxeko ekitaldi aretoan egingo da, 18:30ean. Idazlea omentzeko baliatuko dute emanaldia, haren heriotzaren urteurrena baino lehen: 1969ko azaroaren 15ean, igandea, hil zen.

Dohaintza honekin, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak idazlearen memoriarekin duen lotura sendotuko du, eta idazlearen obra zabaltzeko lanari gehituko dio haren historia pertsonalaren zati bat kontserbatzeko eta partekatzeko espazio iraunkorra.

Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus